

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik bat:

## 1. gaia: Enpresek nahi dutena egiten dute gure datu pertsonalekin

(Nahi baduzu, [hemen](#) duzu gaiarekin lotutako bideo bat)

### Egoera:

*Zure posta elektronikora gero eta publizitate-mezu gehiago iristen zaizkizu eta etxean nahiz eskukoan gero eta telefono-dei gehiago jasotzen dituzu eskaintzak eginez. Badirudi enpresa askok lortu dituztela zure datu pertsonalak, Interneteko orrialde batzuetan idatzi izan dituzulako, nahiz eta zuk ez duzun enpresa horiekin harreman zuzenik izan. Aspertuta zaude eta oso haserre.*

### Eginkizuna:

Idatzi artikulua Sustatu.eus bezalako atari batean argitaratzeko. Bertan adierazi zure haserrea, esan zer pentsatzen duzun enpresek egiten duten datu pertsonalen erabileraz, eta, zeure edota inguruko esperientzia lagun, azaldu zein izan daitekeen modurik eraginkorrena gure datuak babesteko.



Guk idatzitako eredia ikusteko, [hona](#) jo.

## 2. gaia: Emakumeak apaingarri gisa

(Nahi baduzu, [hemen](#) duzu gaiarekin lotutako bideo bat)

### Egoera:

*Urtero bezala, San Joan jaien ospakizunen artean, txirrindulari-lasterketa bat antolatu du zure herriko udalak. Urtez urte, sari-banaketa egiteko garaian, neska gazteak igo izan dira podiumera irabazleei lore-sortak banatu eta muxu ematera.*

### Eginkizuna:

Herriko talde feministaren izenean, idatzi gutuna herriko kultura-zinegotziari, xede izanik honelako ekitaldietan emakumeak apaingarri gisa erabiltzearekin desadostasuna adieraztea, aurrerantzean horrelakorik ez gertatzeko argudioak ematea eta egoera konpontzeko proposamenak egitea.



Guk idatzitako eredia ikusteko, [hona](#) jo.